# KLIMA ETA PAISAIAK



1 Irakurri esaldiak eta esan zeinek deskribatzen duten eguraldia eta zeinek klima.

a) Goi-mendiko eremuetan neguak hotz-hotzak eta luzeak dira; eta udak freskoak eta laburrak. ..............................

b) Atzo Iberiar penintsulako zenbait tokitan 30 ºC izan ziren. ..............................



c) Iberiar goi-lautadan tenperaturak muturrekoak dira (hotz-hotzak neguan eta bero-beroak udan) eta prezipitazioak urriak. ..............................

d) Aste honetan, Brasilgo zati batean euri barra-barra egin du. ..............................

e) Eremu polarretan tenperaturak oso baxuak dira urte osoan eta prezipitazio urriak eta elur motakoak. ..............................



2 Lotu eguraldiaren ezaugarri bakoitza bere definizioarekin eta neurtzen duen tresnarekin.

| | | |
|---|---|---|
| Tenperatura | • Atmosferak duen ur-lurrun kantitatea. | • Anemometroa eta haize-orratza |
| Haizea | • Eremu batean erortzen den euri, elur edo txingor kantitatea. | • Higrometroa |
| Atmosferako hezetasuna | • Atmosferaren bero-maila. | • Termometroa |
| Prezipitazioak | • Hodeiez estalita dagoen zeru proportzioa. | • Zeruari begiratzea |
| Zeruaren egoera | • Mugitzen den airea. | • Plubiometroa |

